


ELKARRI MOKOKA: Mikel Hernandorena eta Andrea Etxarri **HITZ ASPERTUAN:** Agurtzane Altuna

ELKARRIZKETA NAGUSIA: Aitor Irastortza **KUXKUXEAN:** Otsaileko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria



“Gogo asko genuen bertsoetan hasteko...”

Mikel Huarte (Baraibar)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Bertsolaritzako azken saioa izan zuten joan den hilean Ibarberriko 5. mailako ikasleek. Altor Irastortzarekin aritu dira ikasten eta penaz agurtu zuten. Orain Araxes ikastetxeak hasiko dira.

Oraindik Eguberrietako irudiak iristen ari zaizkigu...

Eguberri egunean Errazkinen etxez etxe eskean ibili ziren eta Azkaraten eta Gaintzan ere garai bateko ohiturak jarrituz laranjak, pikuak eta sagarrak jaso zituzten allandoetan. Errege bezperako zenbait irudi ere jaso ditugu.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin**



eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Urtarrilaren 9tik otsailaren 28ra bitarte gorputz tratamenduetarako (10 saio) bonuak %50eko beherapenarekin!

Aurpegiko tratamenduak (6 saio) %30eko beherapenarekin.

Martxoaren 30ean iraungitzen dira bonuak.

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez



10 > Ertzilla Ur Partzuergoa

Mikel Betelu eta Camino Garralda Ertzilla Ur Partzuergoko lehendakari eta lehendakariorde izendatu dituzte. Partzuergoak orain arte izandako ibilbidea baloratu eta hobetzeko gogoarekin hartu dute kargua.

14> Batzarre

16> Elkarrizketa: Aitor Irastortza



24 > Araxes Mendi Taldea

Araxes Herri Kirol Elkarteko mendi taldea berrabiarazi dute orain gutxi eta Ttuturre-Intza Kilometro Bertikala antolatzen dabilta. Mendi-lasterketa irailaren 2an izanen da.

22> Nor da nor



26 > Eskubaloi taldea

Astero Leire Perurenarekin Beteluko frontoian entrenatzen dute Araitz eta Beteluko eskubaloi taldekoek. 16 jokalarik osatzen dute taldea eta beraiekin izan gara.

28> Kirola: Araitz-Beteluko Krosa

30> Kuxkuxean: Otsaileko zorion agurrak

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Nik ere salatzen dut

Nik ere gogor eta indar guztiakin salatzen dut Espainiako eta Frantziako Gobernuak mantentzen duten egoera gaizto eta maltzurra euskal preso, deportatu eta atzerriratuekin, arrazoi hauengatik:

1- *Gobernu horiek ez dituztelako betetzen Europako lege, araudi eta gomendioak, gai hauetan.*

2- *Gobernu horiek lege ez-demokratiko batzuk asmatu eta inposatu zituztelako, presoak, deportatuak, ihes egindakoak eta beren familiak gehiago zigortzeko, hau da, gaztigu erantsia emateko eta mendekua praktikatzeko.*

3- *Aipatutako gobernuei, sakabanaketak, bakartzeak, jipoitzeak eta urruntzeak ez dizkielako ekarri beraiek espero zituzten emaitza politiko eraginkorrak, baina, hala eta guztiz ere, eta 28 urte edo gehiago igaro badira ere, berdin-berdin mantentzen dituztelako neurri bidegabe horiek.*

4- *ETA erakunde armatuak, duela bost urte baino gehiago, behin betiko utzi zuelako armen borroka eta bere armagabetzea saiatzen ari delako egiten, bi gobernu handi horien oztopo guztien gainetik.*

5- *Preso horiek eta gainerako pertsona guztiak, errudun izanda ere, beren giza eskubide unibertsalak dauzkatelako, estatu demokratiko orok bete beharrekoak.*

6- *Frogatuta dagoelako neurri horiek ez dutela batere laguntzen presoak birgizarteratzen, eta, hori izan behar dutelako helburu nagusia espetxeek, alegia, bere atxiloak birgizarteratzea.*

7- *Preso gaixo larriek eta adinean aurrera joandako gatibuek ezin dituztelako jaso behar bezalako tratamendu klinikoak eta zainketa arretak.*

8- *Presoen, deportatuen, deserriratuen eta abarren senideak, ahaideak, lagunak eta auzokoak ez direlako errudunak. Horiek ez dute inolako deliturik egin, baina, hala ere, honako zigor erantsi doako hauek pairatzen dituzte sarritan: istripuak, heriotzak, zauriak, elbarritzeak, kontrolak, jazarpenak, estresak, gastu ekonomiko ikaragarri handiak, debekuak, denbora galtze handi-handiak, guraso eta aitona-amona zaharrak ezin joan izatea beren senitartekoak ikustera, bidaiak luzeegiak eta latzeegiak direlako, haurrek beren gurasoekiko haurtzarora galtzea, eta abar, eta abar.*

9- *Espainia eta Frantziako gobernuak ez dutelako erakusten batere borondate onik, konponbidea eta bizikidetzatza egokia lortzeko gure gizaratean.*

10- *Afera hau sakonki aztertuz gero, beste hamaika arrazoi gehiago ere erraz aurki litezkeelako, egoera eta jokabide desegoki hauek salatzen dut.*

Nik ere gorputz eta arimaz salatzen dut!!!

Xanti Begiristain Madotz, Auritz

Tortura salatu eta erazi

Torturaren salaketa eta bera aplikatu eta erabiltzen dutenen auzipetzea giza duintasunaren aurkakoa den krimen honen aurrean, oihu herritar eta unibertsal bilakatu behar da. Edozein motatako Institutuzio eta Erakundeek oraindik orain Estatu batzuetan legezkoa den eta haietako askotan erabili egiten den praktika degradatzaile hau erazteko betebeharrak etikoak dute.

Tortura praktikatzeko duten estatuen artean sartzen du Espainiakoa dokumentazio ugariaren bidez frogatutako egiazkotasunak, hala nola Nazio Batuen Erakundeeko Kontalarien Ebazpenak, torturaren prebentziorako Genevan egoitza duen Europar Erkidegoarenak eta Nazioarteko Amnestyrenak. Hor daude torturen sorburu den bakarkako atxilotzeari buruzko legedian egin beharreko erreformak Estatu espainiarrari Nazioarteko Erakundeek jakinarazitako Deklarazio eta Gomendioak. Halaber Giza Eskubideen Estrasburgoko Auzitegi Europarrak torturaren praktika ez ikertzeagatik Estatu espainiarrari jakinarazitako kondenak.

Hortaz, otsailaren 13a torturaren eguna dela aprobetxatuz, hainbat ekitaldi antolatu ditugu:

Otsailaren 12 igandean bideo foruma egingo dugu, Mitxausenean 19etan, '120 ordu' dokumentala eskainiz.

Eta otsailaren 24ean, Altsasukoen hitzaldi bat eskainiko digute Plazaolan.

Alde Hemendik Taldeak, ekitaldi hauetara etortzeko gonbitea luzatzen dizue.

Alde Hemendik

*Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.*



Larraungo Udalak onartutako mozioa:

Adierazpen instituzionala, Espainiako armadaren maniobrei buruzkoa.

Larraungo Udalak:

- 1- Espainiako armadak Lekunberrin, Larraunen eta Leitzan, inori horren berri eman gabe, baimenik gabe eta segurtasun-protokolorik nahiz segurtasun-neurririk gabe egindako maniobra militarrek salatzen ditu.
- 2- Bat egiten du Larraun, Lekunberri eta Leitzako hainbat herritarrek maniobra militar horiek direla eta adierazitako kezka, ezinegon eta haserrearekin.
- 3- Bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustua berresten du eta adierazten du armadaren agerraldi eta erakustaldiek ez dutela ildo horretan laguntzen are gehiago, aurkako norabidean eragiten dute.
- 4- Honakoa eskatzen dio Espainiako Gobernuari eta armadari: ez dadila berriz gisako maniobra militarrik egin, ez aipatutako hiru udalerrietan, ezta Nafarroako gainerako udalerrietan ere.
- 5- Nafarroan eta Euskal Herrian dauden indar militarrei beraien estrukturak desmuntatzea exijitzen dio Espainiako ejertzitoari, horrela, hemen gastatzen ziren baliabide ekonomikoak gastu sozialetarako erabiliz.
- 6- Akordio honen berri Nafarroako Gobernuari eta Defentsa Ministeriori jakinaraztea erabakitzen du.
- 7- Larraungo Udalak akordio honen berri Aralar Irratira, Mailope Aldizkarira, Larraungo udalerriko kontzejuetara eta prentsara bidaltzea.

JoandakoakGogoan

“Zuhaitz bezala lurtean, kantuak bezala haizean...”

**Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu
638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak
aldizkariaren bitartez.**

(Doako zerbitzua).

asegurogintza
aseguru
aholkulariak
**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**
Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL®
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Mikel Huarte (Baraibar)



Hilabete luzea
Izaten ilbelta
Gaitz erdia dugunok
Etxean babesa
Europa sortaldean
Aurten da traketsa
Garbi uzten du gure
Konpromiso eza

Ez zaigu guri hola
Samintzen bihotza
Kale gorrian eta
Sekulako hotza
Jateko gutxi eta
Dena da izotza
Joan dadila aurten
Negu nahiko motza

Joana Zigandarentzako puntua:

Nafarroako txapelketan
dugu ordezkari

Oinak:

Oholtza, goza, bihotza, ahotsa.



Doinua: Durangotik gorako

- 6 -



IHOTEAK

Hasi da ihote denboraldia. Uitzin dagoeneko ospatu dituzte. Elurrak ez zuen giro hoztu eta urtero bezala etxez etxe puska-biltzan ibili eta herriko elkartearen bueltan festa ederra izan zuten. Gainera, dagoeneko hurrengo urterako maiordomoak ere aukeratu dituzte, Miren Iraizoz eta Jose Luis Igartuak.

KUBARAINO ERE IRITSI GARA

Mailope leku askotara iristen dela bagenekien, baina oraingoan Kubaraino eraman gaituzte. Larraun eta Araizko kuadrilla hau Kuban izan zen orain hila-bete batzuk eta Mailope maletan sartuta joan ziren. Aupa kuadrilla!!

"LIBURU LAGUN"

Araizko Udalak "Liburu lagun" ekimena jarri du martxan. Otsailaren 10ean, 18:00etan, udaletxean egingen du aurkezpena. Bailaran liburutegi baten faltan, gaztetxoek zein helduak lan egiteko, liburu eta ikus-entzunezkoen gozatzeko etab. udaletxeko lehen solairuko gela bat egokitzeko proposamena aurkeztu dute.

Fisikotik haratago



Andrea Etxarri

Kaixo Mikel!
Dagoeneko otsailean sartzen ari gara, mozorroa hartu eta festan ateratzeko momentua. Eta ihoteak nahikoa ez baziren, San Valentin ere ospatzen dute batzuek gurean. Honen harira, gaur irratiko iragarki batean entzun dudana esaldi bat datorkit burura, maitasuna eta edertasunarekin erlazionaturik dagoena. Esaldiak dio “Zuk uste baino ederragoa zara”. Bai, baliteke


esaldi honen helburua estrategia komertzial bat besterik ez izatea, baina arrazoi pixka bat ere baduela iruditzen zait.

“Batzuetan gure buruarekin oso kritikoak gara”

Bizi garen autoexijentziatzako mundu honetan gure buruarekin zintzoagoak izan beharko ginatekeela uste dut. Aipatutako adibide xumearekin adierazi nahi dudana zera da, batzuetan gure buruarekin oso kritikoak gara; gainera, bat-batekoa edo superfiziala denarekin atsekabetu eta gure burua zigortzen dugula, edertasun naturala edo beste batzuek ikusten duten berezko xarma hori gutxietsiz.

Edertasun naturalaz ari naitzenean, ez naiz fisiko soilaz ari, ezta Eguberrien ondoren askok dieta bidez lortu nahi duten irudi ideal horretaz. Munduari eskaintzen edo erakusten diogunaz ari naiz, pertsona batek zu ikusi, topatu edo pentsatzean duen pertzepzioaz, barruan sortzen zaion sentsazioaz, sortzen dituen emozioez. Haruki Murakami idazleak zioen “Erakartzen ninduen ez zen edertasun fisiko kuantifikagarri eta inpersonala, askoz osoagoa zen eta barrutik zetorren zerbait baizik”. Norbaitek euriteak, etxeko usain bereizgarria edota udarako arratsaldeak maite eta miresten dituen bezala, pertsonen benetako edertasuna ikus dezake. Edertasun hau pizten duten gauzak batzuetan ulergarriagoak (eskaintzen dituen irribarre edo begiraden goxotasuna, izarra eraikitzailea, borrokalaria izatea, inozentziaren samurtasuna...) eta besteetan ulertezinak izanik.

Nik pertzepzioaren magia deitzen dut, dituen berezitasun eta indarragatik. Bizi itzazu egun magiko hauek eta esan, zuk zer deritzozu Mikel? Zerk sortzen du edertasuna?



Mikel Hernandez

Kaixo Andrea!! Edertasunaren gaia atera duzula, lehenik eta behin nabarmendu nahiko nuke irratiko iragarki hori bi modutan interpreta daitekeela. Alde batetik, zuk diozun bezala, edertasunezko produktuak saltzeko eta kontsumoa bultzatzeko estrategia hutsa izan daiteke. Beste alde batetik, ordea, edertasuna barrutik eraman daitekeela ere interpreta daiteke, eta horretan datza, benetan, edertasunaren gakoa.

Egia esan egungo kapitalismoak ezarritako estereotipoetatik aldentzea oso zaila da, eta are gehiago telebistan nahiz komunikabideetan edertasunari

“Kanpotik eduki nahi dugun fatxada horrekin tematzen gara”

buruz jartzen dituzten iragarki ezberdinak kontuan hartuta: koloniak, arropa marka ezberdinak... Hala ere, kontsumismo

honek guztiak kontzientziario falta dakarrela uste dut. Azken finean, kanpotik eduki nahi dugun fatxada horrekin tematzen gara, eta barnekoa ahaztu egiten dugu. Hala bada, superfizialtasunari garrantzi handia ematen diogu, nire ustez, barruan ditugun segurtasun falta horiek ezkutatzeko asmoarekin. Eta askotan, gure ezaugarri positibo nahiz gabeziak onartu beharrean, hauek onartu ez eta superfizialitate horretara jotzen dugu.

Honela bada, nire ustez, benetako edertasuna pertsona ona izatean datza, eta besteekin

leiala eta zintzoa izatean. Norbera bere buruarekin eta besteekin zintzoa izaten saiatzea, nahiz eta askotan hanka sartzen dugun. Hala, edertasun horren barne ere sartzen dut barkamena eskatzen jakitea. Era berean, edertasun horren barne enpatia eta elkartasuna sartuko nituzke, gaur egungo kapitalismoak sustatzen dituen berekoikeriaren eta indibidualismoaren aurrean. Ez du ezertarako balio, niri iritziz, kanpotik ederra izateak, ondoren barrutik norbere buruarengan pentsatzen duen pertsona izanez gero.

Laburbilduz, barneko edertasun hori duten pertsonak benetan merezi dutela deritot. Hortaz, barnean ditugun beldur edota aurreiritzi horiek gaituztuz gero, edertasun hori loratzeko pauso garrantzitsua emango dugula uste dut.





Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Homo consumericus, gizaki kontsumista

Mundura jaiotzeak eskatzen digu, besteak beste, arduratsu izatea. Arduratsu geure buruarekin, lehenengoz eta behin, alegia, geure osasun fisiko eta psikologikoa zaintzea, geure burua maitatzea hitz batean. Arduratsu geure menpe daudenekin, hau da, geure seme-alabekin zein ezgaitasunen bat edo ezintasunen bat dutenekin. Arduratsu geure harremanetan, bai familia, lagun eta ezagunekin, bai lantokian, bai ezezagunekin. Arduratsu gure betebeharreran, etxean, lanean, erakundeekin, gizartean, oro har. Eta, jakina, Natura eta planeta osoarekin ere.

Jaiotzean, ardurarik gabe gatoz, dena era instintibo batean egiten dugu eta geure beharrak, asetzen zaizkigu, batez ere, amaren bidez. Poliki-poliki bagoaz amaren menpekotasun oso hori askatzen eta geure buruaren ardura eta jabetza hartzen, alegia, autonomoak bihurtzen. Noraino eta nola betetzen diren behar hauek zein nola hezten gaituzten baldintza dezakete geure izaera eta portaera nagusitzean.

Gaur egun, mugarik gabeko kontsumismo itsu batean gaude sartuta gure gizarte honetan. Eguberriak pasatuta, merkealdia dator eta, ondoren, beste zerbaitek etorriko da. Etengabe bonbardatzen gaituzte "kontsumitu, kontsumitu, kontsumitu" leloarekin. Ia berdina da zer, baina kontsumitu. Behar ez baduzu ere, lasai, guk sortuko dizugu "beharra". Geure zibilizazioa, zibilizazio guztiak azken batez, kontsumismoan oinarritu ohi dira. Geure buruaren benetako beharren oso gainetik kontsumitzera bultzatzen gaitu gizarte honek. Haur jaioberriak ginenean kanpotik ematen zitzaigun, hobeto edo okerrago, behar genuena, orduan menpekotasun oso



“Geure benetako beharretatik urruntzen goaz”

batean bizi ginen eta. Hazi ahala, autonomia hartzen genuen neurrian, ikasten hasi ginen, heziketak hartu zuen garrantzia. Heziketa eta, laster, kanpoko presioak. Etxean bertan hasten gara kontsumistak izaten ikasten, hau da, behar ez dena kontsumitzen, behar dugunaren ordezkioak jasotzen. Laster, inguruko presioek kontsumismoaren alde bultzatzen gaituzte. Horrela, geure benetako beharretatik urruntzen goaz eta behar faltsuetara zuzentzen gara. Neurri handi batean, benetako beharren ordezkio behar faltsuetan erortzen

gara, hauek geure benetako beharrak -maiz, dagoeneko ahaztuak- bete ahal baligute bezala. Horrela, kontsumismoaren urrezko idoloa hasten gara adoratzeko. Eta hortik aurrera aseeginak bihurtu gaituzte.

Oraindik orain, zibilizatu gabeko tribuetan, kontsumismoa oso neurri txikian gertatzen da eta hauen taldeen barruan zein ingurumenarekin, orekan bizi dira. Baina bertara zibilizazioa iritsi bezain laster, kontsumitzaile hasten dira bihurtzen, mundu hobe baten promesa faltsuarekin.

Haur jaioberriak ginenean beharrak sentitzen genituenean, negarraren bidez eskatuz gero, ama edo honen ordezkioa etortzen zen guregan. Gosea, hotza, minak, goxotasunaren beharra baziren,... amak bularra ematen zigun, besoetan hartzen gintuen eta, gehienetan, lasaitzen ginen neurri batean guregan etortzen zelako kasu egitera, ez bazen arazo larriago bat gertatzen ari zitzaigula. Helduak izatera iristen garenean, gogoan daukagu gordeta haur jaioberriko hura. Gure gizarte kontsumiarazle honek kontsumitzera bultzatzen gaitu etengabe, batez ere, behar material eta beste motakoen atzean dauden behar emozionalak beteko ditugun promesarekin. Gizarte kontsumiarazlea gure behar emozionalak asetzeko kontsumismoa erabiltzen badugu, frustrazioa baino ez dugu elikatu. *Homo sapiens* izatetik, *homo consumericus* izatera pasatzean, aseeginak bihurtu gara eta hau kaltegarria da oso, bai geuretzat bai gure planeta maitagarri honentzat. Konponbidea, beraz, arduratsu jokatzeko da. Arduratsu geure buruarekin, arduratsu geure planetarekin. Banan banan, nork bere ardura.



Sumiñe

Sue omen da gizakion bizimodu raso aldatu zun elementue; oinarrizko elementutako bat. Sue izan leike bakoitzek barrun damakiuna o kanpoan itteuna, gure gozagarri. Erraietan nahikoa sugar bada, errex itten zaio aurre kanpoko ipar haizeai. Tximiñiko suen galda haundina izanda re, nekez beotzea, ordea, barrungo hotza askotan.

Suek bado halako erakarpen indar bat. Denboa errex joan ditteke suei beire; eurre poliki-poliki besarkatuz, gorrituz eta deseñez joatean galda goxo horri beire. Umetan suekin jolasean ibilli ezkeo gauean, ohatzean, pixe itten zela esaten ziguen. Umeak erretzeko beldurrez asmatutako trikimailuet dela esango nuke nik, baño tira!

Suen ingurur dantzan hasi naizen hontan, aspaldi sentittu ez nun min bati jarri dizkiot hitzek.

Kanpoan hotz, eta barrun e so-seguik ez, eta izotzai aurre iñez aldapan gora tipi-tapa. Hauspoa berotuta, baño behatz puntak harrie baño goorrigo. Belarrik tapatuta, baño suur puntte izoztuta; bi galtzerdi pare, baño hankeko behatz potoloa sentitze ez nula. Bale, ilbeltzeko izotz zuriek irrazi dit oangoan batalla; Mallo barrenetaño jetsita daun antziarra testigu! Buelta erdi eman, eta etxea, sutondoa!! Suei eskaini esku eta hanka hotzak, eta haratx, sufrimentuen segida; aspaldi sentittu ez nun miñe: sumiñe!!



Suek bere ondotik alde itteatik jarritako kastigu moukoat da sumiñe. Korrika ttikin sutondoa joan eta hotzetik berora pasatzean sortzen den kontraste horrek izuarrizko miñe emateo; hoixe da sumiñe. Behatzen muimentu ttikinak biderkatu itteo miñ hoi gañea, hortaz, minutu pareatean ze in eztakizola gelditzen zea. Hotzetik ihesi, beroan kastigue! Eta deskuidatu ezkeo negu guztieko kondena. Suekin jolasean ibili ezkeo erre itte omen da, hoben hobenea pixerreka bat gauean. Baño hotzakin jolasean ibili ezkeo re ez ta berriketaik. Ospelak izan ditteke negu guztiko kondena. Harrigarrie da gorritu ttikitietzuk nola eakusten dittuen izarrak! Izar beretxuk ikusten dee azkazal ondoko ittaziet iikitzen zaizonean. Normalean eskutan ateatzen deen zauri ttikitietzuk, dee ittazik. Ospelak eta ittazik, sorgin berak botatako begikotik sortuk izango dee iñondik ee; sumiñek, akaso??

Eskularrukin elur bolak eztee horren ongi itten eta ttikitan sarri izaten giñun eskuk suminduta. Oain bolak itteko ez elur eta ez denbo. Euneroko martxak sumintze gattu gehinean, eta ez hozberoak. Sumindu, baño beste zentzuetean.

Joan da ilbeltza eta beakin eaman ditto izotzak, bai zurik eta bai beltzak. Joan da antziarra Mallo barrenetatik, baño aitziki politte utzio tarteka-tarteka sentitzeko hobeak den hitzek goora ekartzeko. Izan sumin, ospel o ittazi, antziarrakin batea urtutze-ko hobeak dee ta.

Kontuz hozberoakin, baño ez geo suei sekulen itzaltzen utzi!! Ni Mallopeko sorgiñe banintz, hoixe eskreittuko nuke!!

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 948.60.48.06 Iñigo
31870 Lekunberri www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta
Diario de Navarrako
Korrespontsala**

948513056
699179437

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·**

PATXI GALARZA

Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34



Mikel Betelu izendatu dute Ertzilla Iturburuaren Partzuergoko lehendakari

Camino Garralda lehendakariorde izendatu dute eta dagoeneko partzuergoak dituen arazoak aztertzen hasi dira.

Joan den 2016ko irailaren 20an Mikel Betelu, Lekunberriko Udaleko EH Bilduko zinegotzia, Ertzilla Iturburuaren Partzuergoko lehendakari izendatu zuten. Eta Camino Garralda, Iribasko Kontzejuko lehendakaria, partzuergoko lehendakariordea da.

Mikel: "2015eko maiatzeko hauteskundeen ondoren eratu behar zen Ertzilla, baina ia urte eta erdi atzeratu eta gero, Kontzejuek partzuergoa martxan jartzeko eskaera egin zuten".

Ertzilla Iturburuko Partzuergoa 1994an sortu zen, urte hartako urriaren 27an onartu ziren estatutuak. Gaur egun bertako kide dira, Iribas, Alli, Astitz, Etxarri, Mugiro eta Lekunberri, sei herriek Iribasko iturburutik hartzen dute ura. Larraungo Udala eta Nafarroako Foru

Erkidegoko Administrazioa ere kideak dira, baina ez dute bozka eskubiderik.

Mikel: "Partzuergoak Ertzillatik herrietako deposituetaraino doan ur hornikuntzaren kudeaketaz arduratzen da, uraren goi horniduraz. Herri bakoitza arduratzen da gero, deposituetatik etxeetara doan uraren kudeaketaz".

Partzuergoak izan duen ibilbidea aztertzen eta aurrera begirakoa planifikatzen dabil lehendakaritza berria, 2010. urtetik ez da partzuergoko kideen batzarrik egin, azkeneko urteko kontuen eta aurrekontuen onarpenak falta dira edo ez dute horren berririk behintzat. Nabarmendu dute gauza asko daudela argitzeko eta hobetzeko. Mikel: "Kontzejuetatik hainbat kexa jaso genituen Lekunberriko Udalean, euren



Iribasko iturburutik hartzen dute ura Ertzilla Partzuergoko kide diren herriek.

kontuak aztertzen hasi eta konturatu baitziren Ertzillari zegokionez ez zirela kontuak bat etortzen". Caminok azaldu digunaren arabera, uraren gastuetan kontraesanak daude partzuergoa osatzen duten herri bakoitzean. Camino: "Guk azalpenak eskatu ditugu eta oraingoz ez dugu erantzunik jaso".

aurkeztu egin behar dira, eta hori guztia ez da 2010az geroztik egin". Eta kontuak ez datoz bat, Kontzeju bakoitzean ezberdin kobratzen dute. Camino: "Kontzeju ba-tzuetako zenbait etxetan ur kontagailurik ere ez dute, beste kontzeju ba-tzuetan ez dira duten gastua kobratzera iristen... Hori guztia berrantolatuta beharra daukagu".

horrek egun duen kudeaketaren gaineko erabakia ere Ertzilla ur partzuergoan hartu beharrean Lekunberriko Udaleko zinegotziok hartu genuen".

Hidroambiente enpresa pribatuari esleitu zitzaion ur-araztegiaren kudeaketa. Urtean 90.000 euro (gastu elektrikoak barne) inguruko gastua suposatzen du enpresa pribatu horren esku uzteak.

Lekunberriko EH Bilduk txosten juridiko bat eskatu zuen partzuergoaren egoera juridikoa, funtzionamendua eta kudeaketa ekonomikoa eza-gutzeko. Camino: "Ur litroa oso garesti ateratzen zaigu eta ez dakigu zergatik ari garen horren garesti ordaintzen". Izan ere, partzuergoak nahiz eta gastu batzuk zehaztu, ez du uraren tasa zehazten, Kontzeju bakoitzak eta Lekunberriko Udalak zehazten dute euren herrietako ur tasa. Hori argitu eta funtzionamendua hobetzea da lehendakaritza berriaren helburuetako bat.



UR-ARAZTEGIA

2013ko ekainaren 16an inauguratu zen Ertzilla iturburuko edateko ur-araztegia (ETAP). Nafarroako Gobernuak 1,1 milioi euroko diru-laguntza eman zuen proiektua abian jartzeko. 1.406.852 euroko kostea izan zuen eta horietatik 1.159.217 euroko laguntza jaso zuen. Uraren uhertasun-arazoak konpontzeko beharrak konpondu eta biztanleei kalitatezko ura eskaintzeko helburuarekin egin zen. Mikel: "Ur tratamendu plantaren proiektua Lekunberriko Udaletik bideratu zen, eta

Uste dugu horren erabakigunea Ertzillako kideak behar dutela izan. Iruditzen zaigu gastu ikaragarria dela eta enpresa pribatu baten bitartez egin beharrean lanpostu publiko baten bitartez egingo bagenu izugarri merkaturko litzatekeela kudeaketa hori. Nafarroako zenbait ETAP bisitatu ditugu eta kudeaketa publikoaren bitartez behar bezala funtzionatzen dutela ikusi dugu eta gainera askoz ere merkeago. Sakana edo Leitzañ horren alde egin dute, lanpostu publikoa sortuz, eta aurkezteko aurreratsuna suistatuz herritarren artean. Gaur egungo ereduarekin gure gastua hirukoiztu egiten da".

Hilabete honetan amaitzen da Hidroambienterekin egindako kontratua eta aztertu egin behar da berritu edo kudeaketa modua aldatu. Partzuergoko lehendakaritza kezu da, bere garaian "presaka" eta inongo eztabaidarik gabe hartutako erabakia izan zelako. "Kudeaketa hori privatizatu egin da kudeaketa publikoaren eta pribatuaren arteko aldea aztertu gabe".

Azken urte hauetan Lekunberriko Udalak berak hartu ditu partzuergoari zegokion hainbat erabaki, adibidez, ur-araztegiaren kudeaketa privatizatzea. Lehendakaritzak, ez daki noiz eman zion partzuergoak erabaki horiek hartzeko eskumena Lekunberriko Udalari. Camino: "Partzuergoak ez du behar bezala funtzionatu. Nire ustez utzikeria handia egon da, Estatutuen arabera urtean bi batzar egin behar dira, kontuak

“Uraren kalitatea bermatzeko beharrezkoa da 24 orduz adi egotea”

Javier Aldaregia 20 urtez izan da Lekunberriko Udaleko zinegotzi eta hainbat urte egin ditu Ertzilla Iturburuaren Partzuergoko lehendakari. Gaur egun Iribasen dagoen ur-araztegian egiten du lan.

Javier, gogoan duzu partzuergoaren sorrera?

Partzuergoa edateko ur beharrarengatik sortu zen. Garai batean Lekunberrin, udan, urik gabe gelditzen ginen. 1950. urte inguruan Alkazarrenetik hartzen zen. Ondoren, 1973an Malkorrean dagoen ur depositua egin zen Etxarritik ura hartzeko, baina ura oso zikin etortzen zen eta Iribasko iturburutik hartzen hasi ginen gero. Lekunberri 20 litro segundoko kontzesioa zuen baina hala ere, uda iristen zenean, tartean ur gutxi etortzen zen.

Eta uraren horniketa nola kudeatzen zen?

Uraren eskumena Larraungo Udalarena

zen, Lekunberri Kontzejua zen oraindik. Baina Larraungo Udalak eskumena kontzejuen esku utzi zuen eta hortik sortu zen Ertzilla Partzuergoa, denon artean konponbidea emateko. Gehiago gastatzen duenak gehiago ordaintzen du...

Baina tasa horiek nork zehazten ditu?

Tokiko entitate bakoitzak bere kanonak ezartzen ditu. Lekunberri bereak ditu, Arruitzek bereak, Mugirok bereak...

Eta hori zergatik ez da bateratzen?

Ez dakit, bere garaian hala erabaki zuten eta gaur egun bakoitzak nahi duen moduan kobratzen du. Lekunberrin nahiko tarifa orekatuak dauzkagu.

2013an ur-araztegia inauguratu zuten. Nondik nora sortu zen proiektu hori?

Partzuergoa sortu zenean eta Kontzeju guztiak ados jarri ginenean, proiektu bat jarri zen martxan ura Iribastik herrietara eramateko eta baita ur-araztegi bat ere. Udan lokatz askorekin etortzen denean garbitu egin behar delako. Ura iturburutik etxeetara zuzenean iristen zen, inolako tratamendurik gabe.

Eta hori 2013. urtera arte?

Bai. Horregatik tarteka txorrota irekitzen genuenean ura zikina etortzen zen. Gaur egun berdin du zein urtaro-tan egon, ura garbitu eta tratatu egiten da eta etxeetara kalitatezko ura iristen da. Ur-araztegiaren azpian 500 metro kubikoko depositu bat dago eta hortik banatzen da gero herrietara. Jendeak kontsumitzen duenaren arabera emari handiagoa edo txikiagoa bidaltzen da. Joan den urtean Aralar, barrutik lehertu egin zen eta orain ur gehiago etortzen da iturburutik.

“Uraren uhertasun maila da kontrolatu beharrekoa”

Zein da urak jarraitzen duen prozesua iturburutik ateratzen denetik etxeetara iritsi arte?

Ura hodi batean iristen da iturburutik ur-araztegiara. Sarreran, uraren uhertasun maila zehazten digute makinek. Horren arabera bota beharreko erreakzio kimikoa zehazten da. Urak gehien jota puntu bateko uhertasun maila izan behar du araztegitik ateratzen denean. Normalean 0,38ko uhertasun mailarekin iristen da baina joan den hilean izan genituen euriteekin 13, 15 edo 26 puntuko uhertasun maila ere izan dugu.



Javier Aldaregia ur-araztegiko langilea da 2013az geroztik.

Horren arabera, nahasketa ontzian aluminiozko sulfatoa, azido sulfurikoa eta hipoklorito sodikoa botatzen zaio. Erreakzio kimiko hori bota ondoren, dekantagailuan zikinkeria solidoa bereizi egiten da eta bomba baten bitartez lokatza kentzeko ontzira pasatzen da, hor ere tratamendu bat ematen zaio uhertasun mailaren arabera eta azkenik lokatza zentrifugazio bidez atera egiten da.

Orokorrean zer moduzko kalitatea du Iribasko iturburutik iristen zaigun urak? Iturburutik ateratzen den uraren %90 oso garbia da. Baina kontrolatu egin behar da, 24 orduz gainera.

Joan hilabeteko euriteek ur emaria handitu egin dute...

Bai. Ertzillako hobia, 35 metroko zulo handi bat da eta udan hori lehor-lehor egoten da. Hobi horrek urez gainezka egin zuen eta Lezegaldera ur asko iritsi zen. Hemen, lanean daramatzadan hiru urte hauetan ez dut ikusi aurten bezainbesteko urik.

Araztegiaren kudeaketa enpresa pribatu baten esku utzi izana garesti ateratzen zaigula uste duzu?

Kudeaketa publikoa baino garestiagoa da bai. Baina gauza asko hartu behar dira kontuan. Langile publikoen bitartez kudeatzen diren ur-araztegi gehienak oso txosten negatiboak izaten dituzte. Osasun sailak analisiak egiten ditu tarteka eta inguruko leku askotan edateko kalitatezko parametroak betetzen ez dituzten emaitzak atera dira. Eta horrek eragin kezagarriak izan ditzake



Nafarroako Gobernuko eta udaletako ordezkariak inaugurazioan.

“Pribatuarekin kuadeatuz funtzionamendu egokia bermatzen da”

herritarren osasunarentzat. Beherako kasuak ezerezean gelditu daitezke, baina gaixotasun larriago bat hartuz gero, ura kudeatzen duen entitatearen ardura da. Hemen abenduan egon ziren Nafarroako Gobernuko osasun saileko azterketak egiten eta emaitzak behar bezala atera ziren.

Langile publikoekin araztegi batek eskatzen dituen betebeharrei erantzutea zailagoa dela uste duzu?

Bai, guztiz. Enpresa pribatu batekin ku-

deatuz gero %100ean bermatzen duzu ez dela huts egiterik egongo, langileak oporrak hartu dituelako adibidez. Toki askotan hori pasatzen baita. Araztegi arduradunak oporrak hartzen dituen gainontzeko udal langileak egin behar dira horren kargu eta askotan egunak ematen dituzte araztegiara joan gabe. Eta arduradunak ez dira berezituak izaten, ez dute prestakuntza nahikorik horretarako. Horrez gain, tarteka konpondu beharreko matxurak eta aldatu beharreko motorrak, bonbak eta beste-lakoak izaten dira. Halakoetan enpresa pribatua denean bere gain hartzen ditu gastu horiek guztiak. Aldiz kudeaketa publiko bidez egiten denean, halakoak garesti ateratzen dira, bai ekonomikoki eta bai osasun aldetik ere.





Euriteek sortutako irudiak

Ilbeltzaren hasieran egindako euri jasek hainbat luizi eragin eta herrietako zenbait gun e ur azpian utzi zituen. Ilbeltzaren 11n Lekunberriko Ibarberri ikastetxeko patioa eta beheko solairuko gela batzuk urak hartu zituen. Horra hor aurtengo lehenengo euriteek utzitako zenbait irudi!

Argazkiak: Joxe Mari Zabaleta.



Ibarberri ikastetxeko beheko solairua urak hartuta.

Euskara ikasleentzako diru-laguntzak

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei diru-laguntza eskainiko die. Diruz lagunduko dira 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak. Diru laguntzaren zenbatekoa gastuaren %50ekoa izanen da gehienez ere.

Onuradunek ezin izanen dute 698,00 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

Eskabideak aurkezteko epea 2017ko otsailaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da.

Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko erregistroan edo dagokien herriko Udaletxe edo Euskara zerbitzuan:

Eskabide ofiziala beteta, eskatzailearen nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria, matrikularen ordainagiria, langabeek Seguritate Sozialak emandako bizitza laborala izeneko agiria edo SEPEk egindako ziurtagiria (Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko) eta kontu korrante zenbakia.

Informazio gehiago: larbeleareuskaraz@iparmank.eus edo 948 504400 telefono zenbakian.

*Lagundu
Mailope!*

Mailopeko bazkidea izan
nahi duzu?
mailope@labrit.net



Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



**BERTAKO
HARAGIA**
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Ettxera eramateko
zerbittua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

Euskal presoen aldeko martxa

Azkeneko urteotan egin den bezala, inguruko herritarrak preso-egoera ozen salatzeko eta urtarrilean egiten den mobilizazio jendetsuari bultzada eman asmoz, Gorritiko gazteluan elkartu ziren joan den hilean.

Gaizkileen muga deitzen diote, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko muga honi eta bertan Nafarroa defenditzen egon ziren gudariek bat egin nahi izan zuten, garai hartan bezala, euskal preso nafarrak defenditzeko. Urrunketa-Dispertsio politikaren amaitzea, larriki gaixo diren preso-askatasuna, zigorraren batuketaren ezartzea eta 7/2003 legearen indargabetzea eskatu zuten.



Lekunberrin, hondakin organikoen bilketarako hiru gune berri

Orain dela bi urte hasi zen konpostajearen proiektua Lekunberrin eta bi konpostaje gune zeuden orain arte. Mendiak Mankomunitateak eta Lekunberriko Udalak egindako balorazioaren arabera, proiektuak ez du espero zen garapena izan eta hiru gune berri jarri dituzte etxeko hondakin organikoak murriztu eta konposta lortzeko.

Orain arteko ibilbidean egon diren huts egiteak aztertu, iradokizunak jaso eta konpostajearen inguruko informazioa eskaini zuten joan den hilean eskainitako bilera informatiboetan. Konpostaje gune berriak Iturritak kaleko 3. zenbakian (Euskalduna tabernaren atzealdean), Artzanegi Kalean (pilotalekuaren ondoan) eta Zintzar Kalean (hilerriko jolas parkearen parean) daude kokatuta.

Mailopeko bazkideen urteko batzarra otsailaren 3an

Otsailaren 3an, arratsaldeko 18:30ean, Mailope aldikariko bazkideen urteko batzarra izanen da Beteluko Indianoetxean. 2016. urteko balantzea egingen da eta bazkideek dituzten kexak, iradokizunak eta iritziak jasoko dira. Etorri eta parte hartu!

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



“Bertsolaritza saioetan bertso eskolan aritzeko agiria lortzen dute”

- 16 -



Bost urte daramatza Aitor Irastortzak Larraungo Bertso Eskolan eta pixkanaka jendurrean gusturago aritzen da. Ikasturte honetan gainera, Mendialdeko eta Sakanako ikastetxeetan bertsolaritza saioak ematen dabil. Ibarberri ikastetxean joan den hilean izan zuten azken saioa eta Betelun orain gutxi hasi berri dira.

Noiz hasi zinen bertsolaritzaren munduan, Aitor?

Dula bost urte, Larraungo Bertso Eskola sortu zenen hasi nintzen. Mailopen irakurri nun deialdi ireki bat in behar zuela hasi-berrintzako ta bi aldiz pentsatu gabe deittu nun.

Ordura arte inoiz bertsolaritzarekin harremanik izan zenuen?

Esango nuke inkonzienteki bertsozaletzen joan naizela. Betidanik izan dut bertsolaritza presente, bai inguruan eta baita etxean ere. Eskolan, Estitxu Arozenak, hezkuntza arautun barrun, bertsolaritza eman zigun eta pixkanaka bertsoei atentzio gehiago ja-

rriz, gozatuz eta zaletuz joan naiz. Baina 2005ean Belodromoan jokatu zen finalak markatu nindun bereziki. Txundituta geatu nintzen han zegoen giroarekin. Geroztik, garrantzia haundigoa eman nien bertsoei eta geroz eta erakargarriago egiten zitzaizkidan.

Bost urte daramatzazu Larraungo Bertso Eskolan eta dagoeneko jendurrean aritu izan zara tarteka...

Bai. Lehenbiziko ikasturten, *Bardo*en proiektua sortu zen juxtu, ta Larraungo Bertso Eskolako kideak antolaketan eondu ginen, gaiek jartzen, saioak prestatzen... Urte hartan erronka jarri genion gure bururi handik bi urtera Bardotan atetzeko ta hala izan zen, Luis Mari Larreta, Joana Ziganda eta ni atea ginen.

Eta zer moduzkoa izan zen lehenbiziko esperientzia hura?

Ba itsututa gelditu nintzen, zuri! Oaindik bapaten bertsoak kantatzeko nahiko komeri ta gañea jendaurren... Imaginatu! Saiora allatu ta *Hitzetik Hortzerako* saioa hasi baino lehen elkarrizketa bat in ta mikrofonoan aurren zuri. Gero bertso saioan zehar, bertsoak nolabate osatu nittun, baño komerikin, holako nerbioekin ezin argi pentsatu. Lehenbiziko saio hura Txantrean izan zen ta ehun bat lagun izango zien publikoan.

Gaintzan izan zenuten bigarren saioa...

Bai, han erosogo, famili giron bezela ginauden eta gustoa! Gero *Izeta Txapelketan* ere parte hartu nun oain dela bi urte eta hor e oso urduri. Aurten ere



Larraungo Bertso Eskola orain dela bost urte sortu zen.

izan naiz Izeta Txapelketan eta erronka lasai kantatzea zen ta lortu nun, gozatu in nun gainea, gustoa geatu nintzen ne burukin.

“Pixkanaka joan naiz bertsozalezen”

Eta aurten lehen aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketan izan zarete...

Bai. Joana, Luis Mari ta ni aurkeztu gea lehen kanporaketara ta hor e nahiko lasai abestu nun.

Egie esan txapelketaren aurreko kanporaketa zegoelako aurkeztu gea. Duela bi urte txapelketan geroz ta bertsolari gehiok izen ematen zuela ikusita txapelketaren aurretik kanporaketa bat itten hasi zien. Zuzenen txapelketan sartzea beste kontu bat izango litzeke. Zortzi bertsolari izan ginen aurre-kanporaketa honetan eta lau sailkatu zien txapelketarako, tartean Joana Ziganda.

Joan den hilean Iruñeko Katakraken izan zenuten kanporaketa hori. Zein izan zen egin behar izan zenuten lana?

Hor aittu ginen, zortziko

haundin ofizioka, zortziko txikin, geo bina puntu-erantzun, hitz bati bertsoa botatzea eta hasierako bertsoa ta agurra.

Eta gustura gelditu zinen, beraz?

Bai. Ofizioka behintzat gustoa ta puntu-erantzunak datozen bezela erantzun behar dittuzu ta bueno, bota giñun ahal zen bezala. Hitz bati bertsoa botatzearena ez nun borobildu...

Aitor, ikasturte honetan bertsolaritza saioak ematen ere bazabiltza...

Bai. Nik IVEF ikasi nun, Jarduera Fisiko eta Kirol Zientziak eta oain Nafarroako Bertsoszale Elkarten hasi naiz lanen.

Eta nolatan?

Bertso Eskolan hasi nintzenen enteatu nintzen Bertso Udalekuk e antolatzen zituztela ta han hasi nintzen begirale. Euskal Herrian antolatzen die ta sei eta hemezortzi urte arteko umeentzat ta gaztetxoentzat izaten da.

Zer da hor lantzen dena?

Udaleku normalak die, baino tarteka bertsoekin lotutako zerbait itten da, bertso afarin bat, umeekin kantu bat itten deu bertsoz osatua, jokuk, euskarakin jolasteko jolasak... Bertso negulekutan e ibili naiz begirale eta han eta hemen nenbilenez, Nafarroako Bertsoszale Elkartetik ikastaro bat emateko eskatu zidaten, udaleku bat nola antolatu, burutzeko dinamika ezberdinak eta halakoak azaltzeko. Eta aurten berriz, Joxema Leitzak urtebeteko eszedentzia hartu du eta bere lekua betetzeko deialdira aurkeztu nintzen.



Eskualdean antolatutako hainbat bertso ekitalditan parte hartu izan du.

elkARRIZketa:

*“Bertsolaritza erakargarri
itten saiatzen gea,
beño lehenbizi ulertu in
behar due”*

Eta nongo ikastetxetan zabilta bertso- laritza saioak ematen?

Ni mendialdeko eta Sakanako ikaste-
txeetan nabil eta Iruñean dabilzane
ere laguntzen. Nafarroako Bertsozale
Elkarteak duen transmisio sailaren bar-
rruan lau irakasle gabiltza. Lehen hiru-
hilabeteko hontan 25 talde izan ditut
eta oain hamazazpi bat. Ikastetxe ba-
tzueta mailako bi talde izaten ditut.
Oain arte Etxarri Aranatzan, Altsasun,
Jauntsaratsen, Burlatan, Leitza, Le-
kunberrin, Irurtzunen, Barañainen eta
Uharteko ikastetxeetan ibili naiz.

Zenbat saio izaten dira?

Bertsolaritza saio hauek Nafarroako
Gobernuk eta tokian tokiko mankomu-
nitatek edo udalek lagunduta ematen
dira. Hamabost saio izaten dira, astean
ordubete. Eta ondoren, saiatzen gea
tokian tokian bertso eskolak sortzen ja-
rraipena emateko. Lehen Hezkuntzako
bosgarren edo seigarren mailakoei zu-
zenduta dao. Dena den, adibidez aurten
Urdiaingo ikastetxek Lehen Hezkuntza
osoan emateko apustua in du eta Barañai-
nen bosgarren eta seigarren mailan
ematen deu.

Irailean hasi zinen Lekunberriko Ibar- berri ikastetxean...

Bai, 5. mailako bi talde izan ditut he-
men, hamaseina ikaslerekin talde
bakoitzean. Urtarrilaren 23n dauke
azkeneko saioa eta laugarren mailan
dauden ikasleei bertso emanaldi bat
eskainiko diete ikasitakoa erakusteko
eta datorren urtean saioetan parte har-
tuko duten horiek ere zer ikasiko duten
ikusteko.

Lekunberrin amaitu eta Betelun hasi...

Bai. 23an Lekunberrin azkeneko saioa
emanen dugu eta 25ean Araxes ikaste-
txean hasiko gara. Han 12 ikasleko talde
bat daukat.



Ibarberriko ikasleen Agurra

Penaz agurtu zuten Aitor Ibarberriko ikasleek. Bi bertso hauek eskaini zizkioten azkeneko egunean.

5A-koen bertsoa

*Aitorrekin bertsoan
Egon gara aurten
Errima eta koplak
Gogotsu ikasten
Ea inoiz etzaigun
Ikasia ahazten
Ongi pasatu dugu
Bertsoak egiten*

5B-koen bertsoa

*Gogo asko genuen
Bertsotan hasteko
Nahiz gauza asko izan
Dena ikasteko
Lotsa gaintitu ginun
Gero kantatzeko
Pena haundia dugu
Aitor agurtzeko*

Doinua: Markosek egin eban



Eta Lekunberrin zer moduz joan da?

Oso gustoa, bertsoetako afizioa sortzen
ai da. Oain DBH 1en dauden ikasleek
sortu zuen bertso eskola ta eguerditan
Oskar Estangakin elkartzan die. Oain
dela bi urte Joxemakin bertsolaritza
saioak eman ondoren motibatuk zeu-
dela ikusita proposatu zieten bertso

eskolan jarraitzeko eta bertso eskola
sortu zuten eta iaz bertsolaritzan aritu
zirenekin ere bigarren talde bat sortu
da.

Hamabost saio horietan zer lantzen duzue?

Hasten ganen, normalen ez dauke-

te ideik e. Askok bertsoariak ikusi izan dittue baino asperririk dienan aurreiritzie daukate eo ez due ulertzen eo ez die behin e kaso itten jarri. Horreatik gu saiatzen gea bertsoaritzza erakargarri itten, beño lehenbizi, ulertu in behar due bertsoa zer den, ze ezaugarri ditun, ze euki behar den kontun, ta geo poliki-poliki sortzen hasten gea.

Bertsotako ze teknika ibiltzen dun esplikatzza iritsi izan gea, doinu ikasi ta geo doinu bakoitzek ze baldintza bete behar dittun ikusi, zenbat lerro dauzken, neurri txikikoa eo haundikoa den...

Nik beraiei azaltzen dieten bezela, bertsoaritzzako saio hauetan beraiek lortzen duena da gidabaimena, beraiek oain gidabaimena ateatzen ai die ta gero bertso eskolan gidatzen edo bertsoekin gozaten hasi ditteke.

Baina ikasleen artean ere denetik izanen da, zaletasuna dutenak eta gustuko ez dutenak ezta?

Bai, baina azkenen denak zeureganatzen saiatzen za. Kantuk denai gustatzen zaizkie ta kantu horri letra dibertigarri bat jartzen badiozu, beraiek identifikatzen dien letra bat eo barre-garrie dena ongi pasatzen dute. Eta geo demostratu behar diezu, beaiek e gai diela holako gauzek sortzeko eta hortaz kontuatzen die azken saioetan. Ikusten due gauzek sortu ditzazketela, norbaiti opari bat in diezaiketela bertso baten bidez... Ta horrek motibatu itten dittu. Eta era inkontzienteagoan lantzen den beste gauza bat hizkuntza bera da. Ikasle askontzat euskara asperririk bihurtzen da eskolan derrigorrezko izate horrekin eta bertsoaritzzan ikusten due euskerakin e gozatu dittekela.

Zer izaten da gehien kostatzen zaiena?
Doinu berrik ikastea. Orokorren gehie-



Araxes ikastetxeko 5. mailako ikasleak bertsoaritzza saioekin hasi dira. Arg: J.A. Garaikoetxea

“Errimak non jarri eta neurrin sartzea da gehien kostatzen zaiena”

nak izautzen dittue baino badaude beste doinu asko pentsatzen deunak denok izautzen dittula ta geo ume askok ez dakizkienak. Beste kontu bat askotan kostatzen zaiena da errima non jarri asmatzea, ez due ulertzen non datarren errima edo pota egitea zer den. Neurrin sartzea ere batzutan ez da errex... Baina poliki-poliki.

Eta hemen zer moduzko bertsoariak daukagu gaintzeko ikastetxeekin alderatuta?

Bizkorak, ikasle finek! Euskara maila politte dau ta

horrek asko launtzen du ta gero ausardi punttu bat botatzen badiote, bertsoa sortzeko arazoik ez!

Ausardia garrantzitsua da bertsoan egiteko...

Bai, pentsatu in behar dezu, baino gehiegi re ez, korapilatuz keo ez duzu bertsoik botatzen. Ideia bat burun daukezunen eta nahiko ongi sartzen bada, tira aurrea!



Bardoetan, Gaintzan egindako saioan.

Txooooo!
JUANLUZENEK
SAGARDOTEGIA
MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Martitxonea
sagardotegia
Inaxio Begiristain

Aldatz
Nafarroa
948604607

Otsailaren 18 hasiko dira Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdenak

Inoizko parte hartzerik handiena izango du aurtengo txapelketak, 35 lagunek eman dute izena eta horietatik bederatzik lehen aldia dute. Hasiberri horiekin kanporaketa saio bat egin zen joan den abenduan Iruñeko Katakraken, bertan Larraungo Bertso eskolako Joana Ziganda, Luis Mari Larreta eta Aitor Irastortzak parte hartu zuten Joanes Illarregi, Ainara Ieregi, Ander Baiano, Mintxo Astiz, Saats Karasatorre eta Sahats Alemanekin batera. Bertan, lau bertsolarik lortu zuten txapelketako final-laurdenetara pasatzea, Joanesek, Saatsek, Joanak eta Sahats Alemanek.

Nafarroako Bertsozale Elkarteko kideen ustez, parte hartzea urtetik urtera handitzearen arrazoia, *“estuki lotuta dago azken urteotan transmisio arloan egindako lanarekin. Horren bitartez, gazte eta helduek bertsolaritza ezagutzea lortzen da eta horretan aritzeko aukerak ere ematen dira. Geroz eta gehiago dira Nafarroako herrietan sortzen ari diren gaztetxo zein helduentzako bertso-eskolak”*. Baita hezkuntza arautuan ere urtero 2.400 ikaslek baino gehiagok jasotzen dituzten bertsolaritza saioak ere.

Otsailaren 18an izanen da final laurdenetako lehen saioa eta apirilaren zortzian Iruñean jokatu den finalarekin amaituko da txapelketa. Horren aurretik bost final-laurden eta hiru finalurreko izanen dira. Sei lagun arituko dira epaile lanetan: Saioa Mitxelena, Nerea Bruño, Arkaitz Goikoetxea, Izaro Mitxelena, Jon Abril eta Mikel Beaumont. Gaiak jartzen berriz:

Alaitz Rekondo, Rosita Anakabe, Fernando Anbustegi, Elisa Almandoz, Maider Ansa, Miren Bidarte, Pablo Perez, Ainhoa Iriarte, Kizkitza Mujika eta Ainhoa Aranburu.



Informazio gehiago:
www.bertsozale.eus
www.bertsoa.eus
www.bertsosarrerak.eus

1. final-laurdena	2. final-laurdena	3. final-laurdena	4. final-laurdena	5. final-laurdena
Otsailak 18 17:30tan Tafallako Kulturgunean	Otsailak 19 17:30tan Aurizko Kultur Etxean	Otsailak 26 17:30tan Lakuntzako Kultur Etxean	Martxoak 4 17:30tan Irurritako Gizarte Bilgunean	Martxoak 5 17:30tan Uharteko Arte Garaikideko Zentroan
Julio Soto Kotte Plaza Iñigo Olaetxea Iban Garro Mikel Lasarte Sahats Aleman	Xabier Terreros Saioa Alkaiza Alazne Untxalo Patxi Castillo Ioar Tainta Joana Ziganda	Eneko Lazkoz Aimar Karrika Oier Lakuntza Iker Gorosterrazu Joanes Illarregi Egoitz Gorosterrazu	Oskar Estanga Julen Zelaieta Amaia Elizagoien Josu Sanjurjo Ekaitz Astiz Saats Karasatorre	Eneko Fernandez Ander Fuentes Sarai Robles Xabier Maia Irati Majuelo Oscar Sanz de Acedo
1. finalurrekoa	2. finalurrekoa	3. finalurrekoa	3. finalurrekoa	<p>Nafarroako Bertsolari Txapelketa</p>
Martxoak 18 17:30tan Berako Kultur Etxean	Martxoak 19 17:30tan Antsoaingo Kultur Etxean	Martxoak 26 17:30tan Agoizko Kultur Etxean	Apirilak 8 17:00tan Iruñeko Anaitasuna kiroldegian	
Final-laurdenetako sei bertsolari	Final-laurdenetako sei bertsolari	Final-laurdenetako sei bertsolari	Zortzi bertsolari	

Euskaldunentzako plataforma: Elaide.eus

Nafarroako 32 toki entitateetako euskara zerbitzuen artean sortu dute Elaide.eus egitasmoa euskal hiztunentzat eta euskara ikasten ari direnentzat. On-line plataforma bat da, helduen euskalduntze-alfabetatzea indartzeko eta herritarrei zerbitzua emateko. Gainera plataforma horren barruan komunitate birtual bat eratzea da asmoa.

Bi helburu nagusi ditu egitasmoak, alde batetik, euskara-



ren erabilerarekiko interesa duen jendearen arteko harremanak suspertzea. Horrela, ikasleei eta dagoeneko hiztunak direnei harreman sozialetarako testuinguru jakin bat ematen zaie euskara erabil dezaten eta ondoren, epe ertain edo luze-ara harreman horiek ahozkoan eta kalean erabiltzen hasteko erraztasuna eskainiz.

Bestetik, euskalduntzearen inguruko erreferentziako gune bat ere izan nahi du e-guneak. Euskalduntzearen inguruko informazioa eskainiz, euskaltegiei buruzkoa, eta ikasketa prozesuan laguntzeko material didaktiko osagarriak: liburuak, jokoak, ariketak, bideoak...

Bi helburu horiekin sortu da plataforma eta erabiltzaileak bertan, sarean barreiatuta dagoen materiala bilduta eta antolaturik eskura izanen du eta zalantzak eta galderak foro batean plazaratzeko aukera egonen da.

Bestetik, euskara taldeek, kultura zerbitzuek, mintza programek... sortzen duten jarduera-eskaintza bildu nahi da.

Gauzez pasako da Korrika gure eskualdetik

20 urte beteko ditu aurten Korrika ekimenak, bi urtetik behin Euskal Herrian zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa.

Orain dela 37 urte egin zen lehenengo Korrika, 1980an, euskararen aldeko kontzientzia indartu eta euskaltegiertzako dirua biltzeko. Aurtengoan, martxoaren 30ean emanen diote hasiera Otxandion eta Iruñean izanen du helmuga apirilaren 9an. Hamaika egunez, bi mila kilometro baino gehiago eginen ditu lekukoak eskuz esku. Apirilaren 4an iritsiko da gurera. Antolatzaileek egindako aurreikuspenen arabera goizeko hiruak eta laurdenetan iritsiko da Irurtzunera eta handik sartuko da Larraunen. Lau terdiak aldera Astitzetik pasako da eta bostetan Lekunberrira iritsiko da. Gero Azpiroztik barna Betelura jaitsi (goizeko seietan izanen da Betelun) eta Lizartza aldera joanen da.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?



*Erantzunak hurrengo
alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!*

- 92 -

Aurreko alean kaleratutako argazkian... Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Iñaki Mindegia, Xabi Iribarren, Nahia Tomé, Xabi Oreja, Markos Lopetegi, Iosu Gonzalez, Xabi Sotil, Ainara Saralegi, Gorka Estanga, Javi Mindegia, Iñaki Satrustegi, Margari Baleztana, Maria Josefa Beraza, Itziar Lopetegi, Joseba Satrustegi eta Amagoia Telletxea.



Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako maillope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.




Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



Oraindik ez al duzu sinatu?



Otsailaren 17an amaituko du Mendialdeko Gure Esku Dagok herri galdeketa aldeko sinadura bilketa. Araitzen 70, Betelu 43, Larraun 127 eta Lekunberri 124 sinadura behar dituzte ekainaren 18rako aurreikusitako herri galdeketa gauzatu ahal izateko.

Zenbait herritarrek Gure Esku Dagoren helburuari buruz duten ezjakintasuna nabarmendu dute ekimeneko kideek eta horretarako datozen hilabeteetan hainbat hitzaldi eta ekimen eginen dituzte herritarrei informazioa eskaini eta iritzi eta eredu ezberdinak aurkezteko.

Datorren otsailaren 3an Patxi Zabaletak eta Juan Kruz Lakastak hitzaldia eskainiko dute Atalluko elkarteetan, iluntzeko 20:00etan. Bestetik, hilaren 24an Angel Oiarbide, Gure Esku Dagoko bozeramailea Areson izanen da, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

Mendialdeko Gure Esku Dagoko kideak hainbat herritan etxetik etxera biltza informazioa eskaintzen. Oraindik sinatu ez baduzu, aprobetxatu aukera!

Informazio gehiago: gureeskumendialdea@gmail.com



ekin
rotulación
948 8532 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

GARAIZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZU!
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika, Inglesa, lengua kimika
948 504 450
euskerara marrazketa teknikoak
648253523
unibertsitate mailako ikasgaiak



Araxes Mendi Taldea berriz ere martxan

Araitz eta Beteluko hainbat mendizalek Araxes Herri-Kirol Klubeko mendi taldearen jarduna berrabiarazi dute. Iñaki Alvarez beteluarra da horietako bat: “Uharte Arakil-Beriain Kilometro Bertikalaren harira sortu zen ideia. Kanpoko mendizaleak harritu egiten dira hemen ditugun mendiak edukita nolatan ez dugun kilometro bertikala bezalako probaren bat egiten”. Uharte-Arakilgo Kilometro Bertikala, modalitate horretan Nafarroa osoan egiten den proba bakarra da, nahiz eta Euskal Herria Mendi Erronkaren barruan, puntuagarria den kilometro bertikal bat ere sartzen den. “200 metroko altitudetan bizi gara eta 1.400 metrora dauden mendiak ditugu, beraz, ingurua ezin hobea da mota horretako probak egiteko”.

Halako lasterketak antolatzeko klub baten egitura beharrezkoa izaten da eta lehenengo pausoa Ttuturre Mendi Elkarteari proposamena egitea izan zen. Ttuturre mendi taldea bertan izanik eta beste talde berri bat ez sortzeko, jada martxan dagoen egitura hori aprobeztatzea zen hasiera batean izan zuten ideia. “Gure asmoa ez zen bertako inor probaren antolakuntzan parte hartzera behartzea, taldeko IFK zenbakia erabiltzea baino ez genien proposatu, baina ez zitzaien egokia iruditu eta ondoren Araxes Herri Kirol Klubeko mendiko sekzioaz baliatzea bururatu zitzaigun”.

Mendi Federazioan dagoeneko alta hartu dute eta irailaren 2an egingen den Kilometro Bertikalaren antolakuntzan dabilta buru-belarri. Goizeko hamarretan hasiko da proba. Intzako plazan izanen du irteera eta Tturreko gailurrean amaituko da. 950 metroko desnibel positiboa duen 4 kilometro eta 400 metroko ibilbidea izanen da. Antolatzaileak proba finantzatzeko babesle bila hasi dira jada.

Horrez gain, Araxes Mendi Taldearen jardura martxan jartzeko deialdia egin dute. Kristina Askarai: “Herritarrak prest egonez gero eta gogoia izanez gero, mendi-irteerak antolatzeko prest gaude”. Taldearen etorkizuna bermatzeko bazkide egitearen garrantzia ere nabarmendu zuten joan den hilean Beteluko Zigari elkartearen egitearen aurkezpenean.



“Maila horrek eskatzen duen gogortasuna eskaini nahi dugu”

Intza-Ttuturre Kilometro Bertikala antolatzen ari zarete eta Nafarroako Federazioko Banakako eta Taldekako Txapelketa izanen da aldi berean...

Bai. Araxes Mendi Taldea federatu ondoren, federazioko mendi lasterketako bileretako batean izan ginen gure proiektua aurkezten eta Uhartre Arakilgo probako antolatzaileek eurek proposatu ziguten federazioko kopa aurten Araitzen egitea. Azkeneko zortzi urte hauetan Uhartren egin da eta gure lasterketa ezagutzera ematen lagunduko duelakoan gaude.

Ibilbidea zehaztu duzue jada?

Proba irailaren 2an egingen da. Intzako plazan izanen da irteera, 320 metroko altitudetan eta Ttuturreko gailurrera igo beharko dute, 1.283 metrotara. Hau da, 950 metroko desnibel positiboa duen lasterketa da, 4 kilometro eta 400 metrokoa. Intzako plazatik Añagako iturrira jo eta handik eskuinera hartuta mendi-lepo batetik igo beharko dute. Garai batean abeltzainek abereak goiko larreetara igotzeko erabiltzen zuten bidea da. Baina guk alternatiba gogorrago bat aukeratu dugu, ez da goiz bateko mendi-irteera bat, txapelketa bat da eta maila horrek eskatzen duen gogortasuna eskaini nahi dugu.

Hemendik irailera bitarte zein izanen da egin beharreko lana?

Gaur egun Malloak nahiko zikin daude eta iraila hurbildu ahal boluntario aritzeko prest egongo den jendea deitu beharko dugu denon artean ibilbidea eta ingurua garbitzeko. Orain gure lana probaren antolaketak dituen gastuei aurre egiteko babesleak eta diru-iturriak aurkitzea da. 4.000 euro inguruko gastua aurreikusten dugu. Federazioak anbulantzia eta segurtasuna bere gain hartzen ditu, baina trofeoak, kamisetak, grafikoak eta batez ere, kronometrajeak gastu bat suposatzen du. Uste dugu proiektu polita dela bailarentzako.

Noiz irekiko duzue izen emateko epea?

Maiatzaren 1ean irekiko dugu eta www.kirolprobak.com atariaren bitartez egonen da izen emateko aukera. Federatuen-tzat 18 euro; federatu gabeentzat 21 euro; txip horiarekin federatutakoentzat 16 euro eta txip horiarekin federatu gabe-koentzat 18 euro. Guk gutxi gorabehera 150 korrikalarik parte hartuko dutela aurreikusten dugu.

riaren bitartez egonen da izen emateko aukera. Federatuen-tzat 18 euro; federatu gabeentzat 21 euro; txip horiarekin federatutakoentzat 16 euro eta txip horiarekin federatu gabe-koentzat 18 euro. Guk gutxi gorabehera 150 korrikalarik parte hartuko dutela aurreikusten dugu.

Araxes Mendi Taldeak hainbat mendi-irteera egin zituen bere garaian...

Bai. Hamabost edo hogeit hamar urte izango dira. Mendi-irteerak egiteko kartelak jartzen hasi ginen eta pare bat urtez hainbat irteera egin ziren. Gainera, hasieran jende asko etortzen zen gutxitzen joan zen arte. Orain, Araxes Mendi Taldea berriro ere martxan jarri dugu eta dagoeneko 15 bat lagun taldeko bazkide gara eta urtean 15 euroko kuota jarri dugu. Guk jende-ari galdetu nahi genioke, irteerak antolatuz gero parte hartuko ote lukeen, Ttuturreren egutegia zapaldu gabe noski, gu ere bertako kideak garela. Baina, jendeak nahiko balu gu prest gaude taldeari bizia emateko.



Intza-Ttuturre Kilometro Bertikala:

www.facebook.com/ttuturre.kv
twitter.com/ttuturrekv
www.instagram.com/ttuturrekv/

Informazio gehiago:

ttuturrekv@gmail.com
 660 786 338 (Kristina) / 696 253 407 (Iñaki).

GRUPO TANATORIO
IRACHE
 TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
 LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
 enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
 okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
 948 51 30 32

 panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
 948 50 40 42

“Eskubaloian partiduak defentsan irabazten dira”

laz gaztetxoan eskubaloi taldea sortu zen eskualdean. Hamabost neskak eta mutil batek osatzen dute eta aurten Leire Perurena tolosarrarekin entrenatzen dira asteen behin Beteluko frontoian.

Ezagutzen ez zaituzten horientzat... Aurkez ezazu zeure burua Leire.

Tolosakoa naiz, 18 urte bete berri ditut eta kirol irakasle-ikasketak egiten hasi naiz aurten. Urtetan eskubaloian ibili ondoren iaz utzi nion jokatzeari. Orain, emakumezko bi talde entrenatzen ditut, bat Tolosan eta bestea Betelun.

Eskubaloian aritutakoa al zara? Noiz eta nolatan hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Bai, lehen hezkuntzan nengoenean hasi nintzen eskubaloian jokatzeko multiki-

rol saioetan. Momentu horretan nuen entrenatzaileak eskubaloian jarraitzeko esan zidan eta DBH 1era pasa nintzean eskubaloi talde bat bilatzen hasi nintzen, Tolosan ez zegoelako. Beraz, Andoainera joan behar izan nuen, *Leizaran* taldera. Bertan hiru urte pasa nituen jokatzeko eta hirugarren urteko udaran Usurbil taldeko zuzendaritzako batek hara joateko proposamena egin zidan, Liga Vascan jokatzera (liga altuago batean), beraz nik baietz esan eta bertan beste hiru urte eman nituen. Iaz, Euskadiko txapeldunak izatera iritsi

ginen fase bat igaro ondoren eta irabazteagatik Espainiako fasera joan ginen. Bigarren geratu ginen, baina lehenengo bakarrik sailkatzen zenez, ez ginen txapeldun izatera iritsi.

Eta ondoren utzi egin zenuen?

Esperientzia polit hori izan ondoren, uztea erabaki nuen bai, unibertsitatean hasi nintzelako eta seniorrak (aurten tokatzen zitzaidan kategoria) liga nazionalan zeudenez, astebururo Espainiako hainbat probintziatara joan behar harko nuelako.

“Nabaritzen da maila handiagoa dagoela, baina gustora nabil”

Aurten hasi zara Betelun irakasle? Lehen aldia da irakasle? Zer moduz?

Bai, aurten hasi naiz eta egia esan ez da hainbesteko lana, azken finean, lehenengo urtetik zerbait ikasia dutelako (ez da denen kasua, baina oso azkar ulertzen dituzte gauzak).

Oso gustura nagoela esan behar dut, beti gogotsu etortzen direlako entrenatzera eta ez dudalako beraien atzetik egon behar entrenamendua hasteko edo jarraitzeko.

Zenbat jokalaria daude taldean?

16 gara taldean eta egia esan, Lehen Hezkuntzako 6. mailatik Batxilergora arterako ikasleak ditut taldean. Mutil bakarra, gainontzekoak neskek.

Entrenamenduak nolakoak izaten dira?

Ostegunetan aritzen gara ordu eta erdiz. Entrenamendu guztietan zerbait



Eskubaloi taldeak Leire Perurenarekin tolosarrarekin entrenatzen du.



desberdin lantzen saiatzen gara, eraso, defentsa, kontraerasoak, jokoak, fisikoa... Gutxien gustatzen zaiena, fisikoa lantzea izaten da! Kar, kar.

Oraindik ez dira lehiatzen hasi ezta? Aukera izango lukete lehiatzen hasteko?

Ez, ez dira hasi. Urtarrilaren 27an izango dute aukera lehiatzeko egingo dugun amistosoan. Lotsa dutela esaten dute, baina ziur nago ondo ibiliko direla.

Zer du eskubaloiak erakartzen zaituena?

Egia esan, ez dakit. Askotan galdetu izan diot neure buruari. Lagunekin egote-

ko aukera ezin hobea da, kirola egitea, eta azken finean, talde batean egoteak bere alde onak ditu eta niretzat ezinbestekoa zen eskolako kontuekin deskonektatzeko eta bertan, momentuan dituzun buruhausteak edo jenio txarra alde batera uzteko.

Eskubaloian, non dago gakoa?

Taldekidetzan. Partiduak beti defentsan irabazten dira eta defentsa on bat egingen bada, denek parte hartuz eta bata-



besteari lagunduz partidua eginga dago. Bestalde, taldean erasozten badute atean sartzeko zuloak errazago bilatzen dira.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU bar

GTXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948 60 48 21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

Raul Amatriainek eta Vanesa Pachak irabazi dute Araitz-Beteluko Krosa

Euritsua izan da aurtengo XII. Araitz-Beteluko Krosa, baina hala ere 162 korrikalarik eman zuten izena eta 139 iritsi ziren helmugara. Gizonezkoetan, Raul Amatriain izan zen 7,7 kilometroko ibilbidea egiten azkarrena 25 minutu eta 29 segundotan. Atzetik iritsi ziren Aitor Etxeberria (00:25:33) eta Ibai Alba (00:26:09). Emakumezkoetan, berriz, Vanesa Pachak irabazi du lasterketa 28 minutu eta 54 segundoko denborarekin eta ondoren sailkatu dira Inma Sainz (00:30:03) eta Izaro Rubio (00:30:17).

Eskualdeko korrikalarien artean, gizonezkoetan, Xabier Satrustegi helmugaratu zen lehenengo (00:26:58) eta Izar Amundarain emakumezkoetan (00:35:23). Proba nagusiaren aurretik urtero bezala, gaztetxoek kategorietako lasterketak egin ziren eta guztira 55 hurrek parte hartu zuten.



ESKUALDEKO KORRIKALARIEN SAILKAPENA

DENBORA	IZEN-ABIZENA	HERRIA
00:26:58	Xabier Satrustegi	Betelu
00:29:41	Joanes Rekalde	Betelu
00:30:01	Xabier Azpirotz	Larraun
00:30:04	Julen Elordi	Arribe
00:31:05	Iñigo Garmendia	Betelu
00:31:08	Imanol Estanga	Betelu
00:31:46	Iñaki Alvarez	Betelu
00:32:28	Imanol Jaka	Larraun
00:32:54	Ibai Soroa	Arribe
00:33:41	Xanti Garmendia	Betelu
00:33:44	Aitor Rekalde	Betelu
00:34:28	Miguel Ramon Olano	Betelu
00:34:29	Mikel Amundarain	Arribe
00:34:44	Kiko Eskamendi	Betelu
00:35:23	Izar Amundarain	Arribe
00:35:54	Maddi Sotil	Betelu
00:36:40	Unai Lizarraga	Aldatz
00:37:53	Arantza Mauleon	Aldatz
00:38:27	Iosu Estanga	Betelu
00:38:29	Mikel Otamendi	Betelu
00:41:48	Markel Iriarte	Betelu
00:41:48	Imanol Amundarain	Atallu
00:41:49	Asier Elizalde	Betelu
00:41:49	Ander Elizalde	Betelu
00:41:49	Jon Otermin	Betelu
00:45:27	Iñaki Satrustegi	Betelu

KADETEAK

IZEN-ABIZENA	DENBORA
Abule Esteban Elizalde	00:10:13
Iker Mintegi Claver	00:10:40
Tarekegn Esteban Elizalde	00:11:25
Cian Aranburu O'reilly	00:11:53
Oier Goikoetxea Otermin	00:12:33
Asier Otxotorena Olite	00:12:34
Oier Goñi Martinikorena	00:13:33
Unai Garmendia Huarte	00:13:34



TAXILON

 Lontxo Otamendi Artola
 661 202 249
 (9 plaza)
 E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA

 BETELU
 948 513 007
 sotilgarajea@gmail.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
 ARLOETAKO HORNIGAIK
 BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
 Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
 Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

Lagundu Mailope!
 Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
 mailope@labrit.net



Zoriondu itzazu zune lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



Unai eta Urtzi Argiñarena

Unai urtarrilaren 16an, 2 urte egin zituen eta
Urtzik otsailaren 5ean, 4 urte beteko ditu.
Muxu pottolo bana etxekoan partez.

Oier Goñi
Otsailak 1, 14 urte.
Zorionak Oier! Ongi pasa
zure eguna eta muxu bat
etxekoan partez.




Itxaso Oreja Altuna

Otsailak 1ean 2 urte.
Urte askotako pottokita! Bixi-bixi
heldu zea bestean atzetik... Muxu
haundi bat etxeko guztin partez!
Aita, Ama, Egoitz eta Eneko.



Nere Zabaleta Olasagarre

Otsailak 11, 11 urte.
Zorionak Lekunberriko Nere Zabaleta Olsa-
garreri. Otsailaren 11n, hamaika urte betetzen
dituzuzlako. Urte askotarako eta muxu asko!
Etxeko denak maitasun haundiz.



Araitz Martinikorena Irazu

Otsailak 8, 6 urte.
Ondo ondo pasa zure eguna Araitz.
Muxu bat Amets, aita eta amaren partez.



OLAIA SOROA NAVARRO

Otsailak 7, 18 urte.
Zorionak Olaia!
Jarraitu irribarre horrekin.
Muxu haundi bat etxekoan
partez.



Luzia Peña Jiménez

Otsailak 19, 9 urte.
Zorionak txapelduna!!!



Joxe Antonio Mikeo eta Maria Esther Amondarain

Urtarrilak 28.
50 urte ezkondu zinetela! Zorionak atte, ama, attuna, amona...
Jarraitu beti bezain alai eta zoriontsu. Etxeko guztien partetik.



Julen Torrado Beraza

Otsailak 5, 13 urte.
Urteak joan urteak etorri...
Gurean azkar batean pasatzen
direla!! Zorionak eta musu handi
bat etxekoan partez!!!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

otsaila

3 Mailopeko bazkideen urteko batzarra, arratsaldeko 18:30ean Beteluko Indianoetxean.

3 Gure Esku Dago ekimenari buruzko hitzaldia Patxi Zabaleta eta Juan Kruz Lakastaren eskutik, Atalluko elkartearen, iluntzeko 20:00etan.

4 Santa Ageda bezpera.

10 "Liburu lagun" proiektuaren aurkezpena, 18:00etan Araizko udaletxean.

24 Gure Esku Dago ekimenari buruzko hitzaldia Angel Oiarbideren eskutik, Aresoko udaletxean, iluntzeko 19:00etan.

26 Gaztetxoei zuzendutako sukaldaritza ikastaroa Lekunberriko Kattagorri Elkartearen.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garajejan. Extra askoekin (Bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...) Argazki eta informazio gehiagorako jarri zaitez harremanetan: 630 041 480.



ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Bete-lun, bizitzera sartzeko prest. 80m2-ko pisua altzariz hornitua. 690 006 283 (Mila).

- Bajera bat alokatzen da Betelun. 690 006 283 (Mila)

GALDUTAKOAK

- Dron bat galdu dugu, norbaitek topatzen bada deitu 650 070 919 zenbakira. Mila.

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

Errefuxiatuentzako arropa bilketa



Noiz:
Otsailaren 20 astelehena arte
Non:
Mitxausenea Kultur etxean

- Arropa egoera onean egon beharko da, eta hobe neguko arropa bada

Arropa AHNA erakundeari emango zaio Calais-era bidaltzeko

Mendiidea
MILA GAZTETAKO ETXEA 19

otsailak **3**
SOLASALDIA
Erabakitze Eskubidea: Aldarrikatzetik gauzatzera


Patxi Zabaleta
(Politikari ohia)


Juan Kruz Lakasta
(Kazetaria)

20:00etan
Atalluko Elkartearen

Ondoren Luncha eta sinatzeko aukera izango da


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUIAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

ARRUIZKO IHOTEA

Otsailak 4

Goizean, hamaiketako, puska-biltza herrian barna musikarekin, gero bildutakoarekin bazkaria izango da. Arratsaldean, 2. puska-biltza. Iluntzean Attezarkoren erretzea eta amaitzeko afaria.

BETELUKO INAUTERIAK

Otsailak 11

· 10:30 Hasiera eta Karrika-dantza plazan. Jarraian kalejira herrian zehar Iruindarrok elektrotxaragarekin.

· 15:00 Herri bazkaria frontoian (Txartelak beharko dira bai kateringerako eta baita bazkari auto-gestionaturako ere).

· Ondoren dantzaldia Zesuma taldearekin.

· 00:30 Dj Xabi Dantzaleku

BARAIBARKO IHOTEA

Otsailak 11

· 10:00 Herriko plazan elkartzea (denok mozorrotuta!!)

· 10:15 Gosaria herriko ostatuan

· 11:30 Kalejira herrian zehar Mendiberriren soinuarekin

· 15:00 Bazkaria herriko ostatuan eta ondoren festak jarraitu egingo du Mendiberrirekin.

LEKUNBERRIKO INAUTERIAK

Otsailak 17

Eskolako inauteri jaialdia.

Otsailak 18

· 11:00 Hamaiketako Kattagorri elkartearen (Sarrerak Mitxausean salgai 10 eurotan)

· 12:00 Umeentzako musika, piñatak eta goxokiak herriko plazan.

· 13:00 Inauterietako lehiaketa txarangaz alai-turik. Saria: kuadrilla afaria.

· Desfilea herriko plazan izanen da.

· 19:00 Irurtzango zantantzarrak eta pertsonaiak herrian zehar.

· 20:00 Aitezarkoren erretzea herriko plazan.

ALLIKO IHOTEA

Otsailak 25

· 13:00 Puska biltza etxez etxe

· 14:00 Otordua

· 17:00 Mus txapelketa eta bingoa

· 18:00 Txokolatada

· Arratsaldean zehar musika eta giro ona ostatuan!

· 21:00 Afari autogestionatua

· 23:00 Parranda

ALDAZKO IHOTEA

Otsailak 25

· 11:00 Gosaria herriko Martixa elkartearen

· 12:00 Erronda trikitalariekin sagardotegira eta ostatura.

· 14:00 Bazkaria elkartearen eta ondoren erronda eta mozorroaren erretzea

· 21:00 Afaria ostatuan eta dantzaldia.

GAINTZAKO IHOTEA

Martxoak 11

· 11:00 Puskabiltza herrian barna trikitalariekin. Arratsaldean musika eta herri poteoa.

· 21:30 Afaria Sonbelu elkartearen

· 00:30 Goizaldera arte mozorro dantzaldia